

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta Europako beste 16 eskualdek ekonomia zirkularrerako trantsizioaren aldeko konpromisoa berretsiko dute

Iruñeko Baluartean egingo da irailaren 4an eta 5ean SCREEN partzuergoaren 4. topaketa

Asteartea, 2018.eko abuztuak 28

Nafarroako hiriburuan egingo da irailaren 4an eta 5ean [SCREEN](#) partzuergo europarraren laugarren nazioarteko topaketa. Garapen eredu iraunkorren ezarpenarekin konprometuta dauden 17 eskualdek osatzen dute partzuergo hau, Foru Komunitatea barne.

SCREEN partzuergo europarra (ingelesezko "Synergic Circular Economy Across European Regions" izenaren akronimoa: Ekonomia Zirkularren aldeko Europako Eskualdeen arteko Sinergiak) Europako 17 eskualdek osatzen dute guztira, eta horien artean dago Foru Komunitatea. Erakunde honen IV. Nazioarteko Workshopa Iruñeko Baluarte Biltzar Jauregian egingo da irailaren 4an eta 5ean. Proiektu honek Europar Batasunaren 1,7 milioi euroko finantzaketa du.

Topaketa Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari Isabel Elizaldekin inauguratu eta Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako foro kontseilari Ana Ollok itxiko du.

Une honetan, SCREEN partzuergoak Espainia, Portugal, Polonia, Grezia, Frantzia, Eresuma Batua, Holanda, Finlandia, Belgika, Kroazia eta Errumaniako beste 16 eskualde biltzen ditu.

Horren harira, Foru Komunitateko Gobernuak Espezializazio Adimenduneko Estrategiarekin lotu du ekonomia zirkularra eta hori garatzeko hainbat tresna abiarazi ditu; hala nola, plan energetikoa, plan industriala edota berrikitan onarturiko Hondakinei eta hauen Fiskalitateari buruzko Foru Legea, hondakin mota guztiak prebenitu eta murrizteko aurrerapauso garrantzitsua.

Testuinguru honetan, Nafarroak SCREEN partzuergo europarreko lantalde bat koordinatzen du, eta horixe da hurrengo topaketan, lurraldeein, nor bere Espezializazio Adimenduneko Estrategiaren barnean, ekonomia zirkularrerako trantsizioa bizkortzen lagunduko dieten sinergiak identifikatzearen alde lan egingo duena.

Proiektuko bazkideak ikerketa eta berrikuntzaren arloko inbertsioetan estrategia kolaboratiboak abian jartzeko lan egiten ari dira, Horizon 2020 programaren nahiz Europar Batasuneko Egitura Funtsen eta Inbertsio Funtsen barnean. Jardunaldiaren bidez, araungintza arloko laguntzari buruzko aholkularitza-zerbitzuak ere bultzatu nahi dira, eskualdeak EBak mugaz gaindiko balio-kateei zuzentzen dizkien funtsez balia daitezten.

Topaketan antolatuko diren mintegi eta tailerren bitartez, parte-hartzaileek legegileei zuzendutako aholkuen eskuliburuari atxiki beharreko “Tresnen Zorrea” aurkezteko prozedura eta moduaren gainean lan egingo dute, lurraldeetan ekonomia zirkularreko ereduren bat hedatzeko aukera errazteko.

Irailaren 5ean, ostegunez, publiko espezializatuari irekita antolatuko den osoko bilkurako partaideen artean, honako hauek nabarmen daitezke: Ferrán Tarradellas, Europako Batzordearen ordezkaria; Carlo Polidori, garapen iraunkorrean espezializatuta dagoen VELTHA ivzw nazioarteko erakundeko kidea; Pedro Mendarozketa, Smurfit Kappako zuzendari nagusia; Tjeerd Hazenberg, Holandako Frysland eskualdekoa; Johanna Alakerttula, Finlandiako Tampere eskualdekoa; Ferdinando Rossi, Italiako Lazio eskualdekoa, eta Marcelo Colledani, Lonbardia eskualdeko ‘Intelligent Factory’ erakundearen arduraduna.

Nafarroako Gobernuaren tresna berriak ekonomia zirkularren alde

Egun, Nafarroako Gobernuak araugintza eta estrategia arloko hainbat tresna abiarazi ditu, ekonomia zirkularrerako transtizioaren aldeko konpromisoa berretsiz. Horien artean, berariaz nabarmendu behar da Nafarroako Gobernuak apirilean onartutako Nafarroako 2030eko Plan Energetikoa (NPA), Nafarroako Klima Aldaketarako Ibilbide-Orriaren funtsezko tresnatzat planteatu dena eta foru exekutiboak energia-eraginkortasuna hobetzeko, iturri berriztagarrietako energia-sorkuntza gehitzeko eta erregai fosilen ordezkapenean aurrera egiteko darabilen estrategia markatzen duena.

Bestetik, Nafarroako Parlamentuak ekainaren 7an onartu zuen Hondakinei eta Hauen Fiskalitateari buruzko Foru Legea garrantzi handiko aurrerapausoa da hondakin mota guztien prebentzio eta murrizketarako, hondakinak baliabidetzat hartuz. Legean ezarritako neurriek, material desberdinen fiskalitateari nahiz helmuga eta tratamenduaren erregulazioari dagokienez, Foru Komunitateko hondakin prebenitu eta kudeatzeko politika zehaztuko dute datozen urteotarako, Nafarroako 2017-2027ko Hondakin Planean jasotakoaren arabera.

Ekonomia zirkularrak lehengaien erabilera arduratsua egitea proposatzen du, baliabideak ahalik eta gehien profitatuz eta murriztu, berrerabili, konpondu eta birziklatzea delako araua zirkulua jarraituan aplikatuz, naturaren berezko funtzionamendua imitatuz.

Politika hauek garatzeko, Europako Batzordeak 650 milioiko inbertsio-ildo bideratu du Egitura eta Inbertsio Funtsen bitartez proiektu hauetarako, eta diru horri, hondakinak kudeatzea xede duen 5.000 milioiko aurrekontu saila eta Europako Inbertsio Bankuak finantzaturiko ekimenak gaineratu behar zaizkie. Horrela, Europar Batasunaren estrategiak ondasunen konpongarritasuna, iraunkortasuna eta birziklagarritasuna du helburu, zaharkitze programatuari, ontzi eta hondakinei buruzko zuzentzaurren erreformari eta uraren berrerabilpenari arreta emanez.